

An aerial photograph of a sandy beach at low tide. Several large, dark footprints are visible in the sand, some containing small pools of water. The footprints are arranged in a path that leads from the bottom right towards the top left. The sand is a mix of light and dark tones, with some areas appearing wet and reflective.

500 ale,

500 taupada,

500 pausu,

500 malko,

500 muxu,

500 irri

500.000. *esker*

 ttipi-ttapa

2009ko abuztuaren 6a | XXIX. urtea

500 zbk | www.ttipi.net



ORDOKI
altzariak

ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA



Sofa eta ohe-sofatan aukera zabala

AROZ - BERRI

IRURITA
☎ 948 581021
Fax 948 452103

ORIKAIN
☎ 948 332617
Fax 948 360904

ONGI PASA BESTAKI!

500... eta etorriko direnak

Hogeita bederatzi urte ez dira mende bat baina, hala ere, TTIPI-TTAPA aldizkariak bildu ditu, denbora honetan, jada gure herrietako historia diren hamaika gertaera

Ez da gure asmoa 500garren zenbakiaren aitzakian prestatu ditugun aparteko orrialde hauen birtartez aldizkari honetan orain arte argitaratu den guztiaren laburpena egitea. Ez horixe!

Alabaina, egia da 500 zenbakitan hainbat eta hainbat gertaeren erreferentzia agertu dela publikatua. Denbora pixka bat hartu eta urte urteko bilduma osatzen duten liburu multzoan bistada bat emanez ohartuko gara nola joan den aldatzen dena urte hauetan, bai pertsonen dagokienez eta baita ekonomia, politika eta jendarteari dagokienez ere. Aldaketa horien testigu eta kontalaria izan da TTIPI-TTAPA, horixe baita bere egin beharra, azken batean. Eta arrazoi horrexegatik, orain arte argitaratu diren ale guztiak garrantzitsuak izan baldin badira, oraindik garrantzizkoagoak izanen dira aurrerantzean etorriko direnak. Dena den, TTIPI-TTAPAK baditu 6.000 harpidedun eta duen an-



tzinatasun historikoa kontuan hartuz, Nafarroan argitaratzen diren tokiko informazio aldizkariarten artean, bai euskarazkoak zein gaztelaniazkoak, TTIPI-TTAPA da ibilbiderik luzeena egin duena.

ERRONKA

Harpidedun kopuruak eta urteetako esperientziak posizionamendu egokia eman arren, etorkizuna egunerok irabazi beharra dago.

Egia da motibo horiek posizionamendu egokian jartzen dutela aldizkaria etorkizunak ekarriko dituen eronkei begira baina, hala ere, gauza jakina eta begibistakoa bada ere, etorkizuna eguneroko lan

isil eta etengabearekin irabazi beharra dago. Bide horretan, eguna joan eta eguna etorri gaitu behar dira aldizkariaren finantzaketa eta produkzio prozesuak ekartzen dituen nahigabeak, eta baita hainbat tokitatik jaso ohi diren presioak ere, izan hauek zuzenak edo zeharka-koak.

JENDEAREN LAGUNTZARI ESKER

Baina, zorionez, aipatu ditugun nahigabe horiek denak iraultzeko haina indar eta laguntza bildu du urte hauetan guztietan TTIPI-TTAPAK jendartetik. Lehenik aldizkaria etxean hartu eta irakurtzeko harpidetza eginez, eta gero, laguntza ekonomikoa eskatu den aldiro, eskuzabalik lagunduz. Jendearen laguntza eta aportazioei esker kitatuko da aurreten, konparaziora, Nafarroako Gobernuak utziko digun zuloa. Eta azpimarratzekoa da, orain arteko 500 zenbakiak bezain inportatea dela TTIPI-TTAPAK duen giza-kapitala.



Argitaratzailea TtiPI-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andutzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttiPI.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola, Kulturkari SLU **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtatzoki, Nerea Alizuri, Joseba Urrotz, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeloren, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemaneu Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdi-ko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

2009ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.36€	Ipar Euskal Herria	.54€	Amerika eta Australia	.120€
Espainia	.36€	Europa	.54€	Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	.30€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



UZTAREN BIHIAK



1982

«Gauza erraxa da rock drogarekin lotu nahi izatea. Gizartearen goimailetan dabiltzaneren artean badaude ikaragarritzko droga kateak eta horiek ez dute ikustekorik rock musikarekin».

LAKET

Berako musika taldea
TTIPI-TTAPA 1982 Uda-Udazkena



1983

«Igande goizero gabilta atez ate, sukaldez sukalde eta lesakar guztiak onartu eta txalotzen gaituzte. Zer nahi duzu hori baino ofizialtasuna haundiagorik?».

KOSKONTA IRRATIA

Lesakako Irratia
TTIPI-TTAPA 1983ko Eguberriak



1984

«Herriko neskatxak eta mutilak horixe egoten ziren soinua jotzeko esanaz eta batzutan 9,5 eta bestetan 10 pezeta pagatuko zuten, gazte guzien artean egiten zuten eta kanpokoek ez zuten pagatzen».

Juan ESTANGA

Eratsungo soinujolea
TTIPI-TTAPA 10. alea, 1984.12

ETORKIZUNA → FORMULAZIO ESTRATEGIKOA

Gauden egoeratik abiatuz geroari begira prestatzen

IKERTALDE enpresak 2008an TTIPI-TTAPArendako egindako azterketatik ateratako datu eta hausnarketak

Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduta eta IKERTALDE enpresaren eskutik, egoeraren azterketa egin zen lehenik, TTIPI-TTAPAr buruzko hausnarketa estrategikoa, merkatu azterketa eta horri loturiko diagnosi azterketa osatuz.

Datu horietatik atera zen gero AMIA diagnosia (Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak eta Ahuleziak), azkenean, hobekuntza proposamenak eta finantzaketa propioa hazteko proposamenak bilduz.

DATUA

478

INKESTA

Baztan, Bortziriak,
Bertizarana-Malerreka
eta Basaburua Barrene-
an eginak 2008ko otsai-
laren 13 eta 20 artean

EZAGUTZA

15 urtetik gorako biztale-
riaren %99 inguruk eza-
gutzen du TTIPI-TTAPA
aldizkaria

BALORATUENA

Herriz herri da
10 irakurletatik 6rentzat
gehien atsegin duten
atala. Hala ere, inkesta-
tuen %16,4k uste du atal
hori indartu beharko zela
aurrerantzean

aipatu ziren ahulezien ar-
tean.

MEHATXUAK

Etorkizunera begira, lehiakidetasunari dagokio-
nez, doako hedabideen
merkatuan gero eta auke-
ra zabalago baten aurrean
aurkitzen da biztanleria eta
hedabide orokorrekin ere ez
dute ahaztu nahi tokiko
errealitatea. Idatzizko he-
dabideei dagokionez, ge-
ro eta erakargarritasun eta
gertutasun handiagoa azal-
du nahi dute eta tokiko in-
formazio eskaintza handi-
tzen ari dira. Euskaraz ira-
kurtzeko ohitura falta ere
aipatzen zen mehatxu gi-
sa, eduki informatiboari da-
gozkion hainbat eremutan
bereziki (politika, kultura...).

INDARGUNEAK


Indarguneei dagokie-
nez, informazio lokalaren
inguruan lanean ari diren
egunkari eta aldizkariak
bertze inork baino hobe eta
azkarrago landu ditzakete
albisteak, gertaeren lekuan,
bertatik bertara, zuzeneko
informazioa bilduz. TTIPI-
TTAPAre eskarmentua ere
aipatzen zen, euskarazko
tokiko hedabiderik zaha-
rrenetarikoa baita eta ja-
danik ibilbide luzea egina
duelako. Produktuak biz-

TTIPI-TTAPako tokiko he-
dabideentzako Ikertalde-
k egindako plan strategi-
koaren baitan, formulazio
estrategikoa edo etorkizu-
nera begira eman behar-
reko urratsak aztertzeko TTI-
PI-TTAPak dituen ahule-
ziak, mehatxuak, indargu-
neak eta aukerak zehaztu
ziren.

AHULEZIAK

Honela, ahulezien arte-
an, TTIPI-TTAPak estaltzen
duen eremuaren zabalta-
suna eta heterogeneota-
suna herriko infor-
mazio eskaintza gorabe-
herak sortzen ditu estal-
dura informatiboari dago-
kionez, eta honek oreka-
ren etengabeko bilaketa
bat eskatzen du.

Erakargarritasunaren
garrantziak eta produktu
bisualen gero eta lehia han-
diagoak publikazio forma-
tuaren etengabeko berri-
kuntza eta eguneratzea es-
katzen du. Aldizkariak lan-
tzen dituen gaiak dagokie-
nez, gaien azaleko tratae-
ra eta hauek sakontasune-
an lantzeko joeraren arte-
ko tentsio bat sortzen da.
Finantziario publikoareki-
ko dagoen mendeotasu-
na eta autofinantzaketa
gehitzeko zailtasunak ere



tanleriaren artean onespen eta harrera ona du. Urteetako lanaren ondorioz hedabideak instituzioen aurrean eta informazio lokalaren sektorean ere finkatzea lortu duela azpimarratzen du Ikertalderen txostenak, baita hedabidearen multimedia izaerak komunikabide modernoak eskatzen duen ugaritasunean bermatzeko aukera ematen duela ere.

AUKERAK

Biztanleriaren euskalduntze-alfabetatze maila gero eta handiagoa aipatzen da hedabideak aitzinera begira dituen aukeren artean. Gainera, euskarazko tokiko hedabideen egoera indartua azaltzen da eta euskaldun berrientzako ikasketa tresna egokia izan daiteke, gaurkotasun handikoa eta irakurteraza den informazioa eskaintzen duten neurrian. Euskarri elektronikoaren, hau da, web-orriaren potentzialtasuna ere azpimarratzen da, gaurkotasuna eta berehalakotasuna eskaintzen dituen hedabide merkeago baten aukera ematen duelakoan.

Irakurle gehienek (82,7) , aldizkaria argitaratzen den aldiro irakurtzen dute. Eskualde guzietan %90ak baino gehiagok irakurtzen du eta Basaburua Barrenak %100ak. Bere herriaz interesatzen zaien ttiipi-ttapak jasotzen duela uste du %90ak baino gehiagok, nahiz eta kopuru hori Malerreka eta Bertizaranan jaitsi egiten den.

TTIPI-TTAPA

FITXA TEKNIKOA	
Galdeketa data:	2008/02/13 - 20
Galdeketa sistema:	Elkarrizketak telefonoz
Irismen geografikoa:	Baztan, Bortziriak, Bertizarana-Malerreka eta Basaburua Barrena
Inkesta kopurua:	478
Inkestaren banaketa eskualdeka:	
Eskualdea	Inkesta Kopurua
BAZTAN	131
BORTZIRIAK	135
BERTIZARANA - MALERREKA	107
BASABURUA BARRENA	105
GUZTIRA	478
Inkesten banaketa sexua eta adinaren arabera:	
Sexua eta adina	Inkesta kopurua
SEXUA	478
Gizonezkoa	241
Emakumezkoa	237
ADINA	478
15-30 urte	150
31-50 urte	163
50 urtetik gora	165
GUZTIRA	478
Errore estatistikoa:	+/- %4,4koa, %95,5eko konfidantza tarte batentzat

UZTAREN BIHIAK

1985

«Neretzat pintura bizitzeko era bat da. Bizia bizitzeko era, eta ez beje-tatzeko zerbait. Bizitzeko zerbait behar da, afizio bat, lana edo; eta neretzat pintura da hori».

Ester FERNANDER

Doneztebeko margolaria
TTIPI-TTAPA 14. alea, 1985.12

1986

«Udaran operatu ezkerotik nahiko lan eduki dut ongi jartzeko baina azkeneko hilabete honetan oso ongi nago eta bakarrik golak sartzea falta zitzaidan, kasualidadea, Osa-sunaren kontra hasi naiz berriz».

Joxe Mari BAKERO

Errealeko jokalarri goizuetarra
TTIPI-TTAPA 18. alea, 1986.12

1987

«Bien artean konpondu dugu bertan zegoen harriarekin eta balango bat irikitzeke kendutako paretako harriekin eta ingurutik ekarritakoe-kin kisua egiteko harria izan dugu».

PATXIKU eta MIGEL

Zubietako bi anai kisugintzan
TTIPI-TTAPA 20. alea, 1987.08

DELPHIA → AZTERKETA KUALITATIBOA

Gizarte sarearen ikuspegia

Kasu honetan, telefonoz egindako elkarriketen orde, patxada handiagoan Internetez hainbat galdera eta gairen inguruan euren iritzia azaltzeko eskatu

zitzaien parte-hartzaileei. Modu honetan, telefono bidez lortzen zailak diren balorazio kualitatiboak bildu zituen IKERTALDEK bere ikerketan.

DATUA

57

GIZARTE ERAGILEK

hartu zuten gonbitea. Horien artean, hainbat udaletako teknikariak, kirol elkarteetako arduradunak, bertze hedabideetako kazetari eta ordezkariak, kolaboratzaileak, inguruko enpresetako arduradunak, sindikatuak, gazte elkarteak, elizako elkarteak... Azkenean 14k bidali zituzten euren erantzunak

formazio falta eta hainbat eskualderen gehiegizko trataera azpimarratu dira. Bestalde, herri batzuetan berri-emai-le edo kolaboratzaileak ez izateak, ez lukeela bertako berririk ez jasotzeko aitzakia izan behar uste dute.

-Ulgarritasuna eta euskararen erabilera: Oro har ez da zailtasunik sumatzen. Erabiltzen den idazkera ulerterraza da parte hartzaileen ustez. Jasotako iradokizunen artean, idazteko garaian irizpide orokorrak finkatu eta idazkerari batasuna emanen liokeen 'estilo liburu' baten beharra aipatu da. Egun batasun falta sumatzen omen da.

Horretarako, zazpi atal nagusitan banatuak, hainbat gai edo galdera proposatu zitzaizkien: TTIPI-TTAPari buruzko zenbait gai orokor lehenik, eta parte-hartzailearentzat zabalik utziz azken atala iradokizunak askatasun osoz egiteko.

Tokiko informazio emai-le gisa azaltzen da TTIPI-TTAPA -hala hautematen dute lehenik erabiltzaileek- eta aitzindari da inguru honetan euskararen sustapenean. Zentzu honetan TTIPI-TTAPAK lan handia egin duela uste dute.

Herriarren arteko kohe-sio eta atxikimendua sustatzeko duen zeregina ere ez dute ahazten. Elkarren artean lotura handie-girik ez duten, baina elkarrengandik hurbil dauden eskualdeetan zabaltzen da, honek beste eskualdeeta-ko informazioa izateko aukera emateaz gain, hauen arteko loturak sortzen laguntzen du. Gisa berean, inguruko zerbitzuen berri izateko modurik aproposena ere bada, parte-hartzaileen iritziz.

Hona hemen emaitza nagusien laburpena, aldizkariari dagokionez:

INFORMAZIOAREN TRATAERA

-Aniztasuna: nahikoa dela deritze partehartzaileek, ez da hutsune handiegirik sumatzen.

-Herri-herri: oro har eskaintzen den informazioa nahiko orekatua dela hautematen bada ere, badira ezberdintasunak sumatzen dituztenak. Herri txikiei buruzko in-

ERABILGARRITASUNA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren bi erabilera nagusi aipatzen dira:

- Batetik, norbere herriko informazioaren berri izateko bidea da.
- Bestetik, publizitate helburua azpimarratu da: inguruko enpresek euren burua ezagutzera eman dezakete aldizkari honen bidez, herritarrek berriz, inguruko zerbitzuen eskaintza ezagutu.

Norbere herriko informazioari ematen zaion garrantzia dela eta, parte-hartzaile batzuek zalantzan jartzen dute gainerako herri-erri buruzko informazioak edota beste atal batzuek jarraipen handirik ote duten. Euren ustez gutti izanen lirateke aldizkaria bere osotasunean irakurtzen duten herritarrak.

FORMATUA

- **Erakargarritasuna:** ongi ikusten da orokorrean, aldizkaria nahiko erakargarria dela irizten diote-kolorea, argazki ugari, orekatua...-. Dena den, irakurlea erakartzeko eta egungo merkaturaren tendentziei jarraiki, noizean behin formatu aldaketaren bat edo berrikuntzaren bat sartzea gomendatzen da.
- **Gehigarriak:** egiten diren balorazioak askotarikoak dira. Batzuek arras gustuko dituzte, bertze batzuei hainbat gehigarri komertzialekiak direla iruditzen zaie. Argia da publizitatearekiko mendekotasuna, ulergarria den arren, irakurleek ez dute gustuko.

UZTAREN BIHIAK



1991

«Ginekologia errebisioa egin behar-ko luke urtero emakumeak. Hau ez da bromako gauza: 14 emakumeta-tik batek bularreko minbizia izanen du bere bizian. Hori datu estadistiko-koa da».

Juan Jesus LARRAZ

Ginekologo leizarra
TTIPI-TTAPA 73. alea, 1991.11.07



1992

«Etxekoetatik urrun, paperak lortze-ko mila zailtasunekin eta gainera 'Joxemari merke ta ona'ren kontura hameka bazilada aguantatu behar. Gogorra da gero!»

Hamid

Marokoko etorkina, saltzailea
TTIPI-TTAPA 91. alea, 1992.07.30



1993

«Aurten 200 urte bete dira Sarako afera hau hasi zela -Lapurditik 4.000 lagun deportatu zituzten Landesetara eta Biarnora- eta ezin da aipatu gabe utzi gure historiako hein hortako gertakari bat, jendeak ez baitu ezagutzen».

Xipri ARBELBIDE

Deportazioaren bigarren mendeurrena antolatzen, Sarako Gaztetxearekin batera
TTIPI-TTAPA 107. alea, 1993.04.08

UZTAREN BIHIAK




1994

«Jendeak ez gaitu ezagutzen baina erru guztia ez da beraiena, gurea eta Elizarena ere bada. Gu pertsona irekiak gara, baina bitxo arrarok bezala ikusten gaituzte eta hori konpontzeko harremana behar da».

Olatz GARMENDIA

Karmeldarra, klausurako moja Donamarian TTPI-TTAPA 141. alea, 1994.09.08




1995

«Etzetik ateri eta gauza diferenteak ikusten dituen emakumeak, ikastaroetara joan eta bertze tokietako emakumeak nola jokatzaren duten ikusten duenak, bere burua kapaz ikusten du gauzak egiteko».

Mariado ITURRALDE

Donamariako baseritarra, Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan TTPI-TTAPA 153. alea, 1995.03.02



1996

«Berriki arte landa etxeen afera hau bakarrik Nafarroan genuen, baina orain, bertze herrialdeetan ere hasiak dira eurenak jartzen, eta konpetentzia haunditzen ari da».

Emma TOMASSONE

Anizkoa (Jauregia), Nafarroako Landa Etxeen Federazioko Lehendakaria TTPI-TTAPA 183. alea, 1996.06.06

...eta 501garrenean, maketa eta eduki berriak

Aldaketa prozesua progresiboki joanen da gauzatzen datozen hilebeteetan

Iritsi da momentua orain arteko diseinuari *hautsa kendu* eta itxura berria ematekoa. Izan ere, prozesu honetan helburu bikoitza dugu eskuarte-an: batetik aldizkaria *bisualagoa* egitea eta, aldi berean, aldizkari berria informazio erre-kurtsoetan aberatsagoa izatea.

IKERTALDEK egindako azterketaren arabera, orokorrean, orain arteko aldizkaria nahiko erakargarria zela pentsatzen zuten irakurleek. Hala ere, irakurlea erakartzeko eta gaur egun prentsa idatziaren munduan dauden joerei erreparatu, noizean behin «formatu aldaketaren bat edo berrikuntzaren bat sartzea» gogoko dutela adierazten dute irakurleek euren erantzunetan.

Normala den bezala, hasiera batean berria eta nobedade zen diseinua, denborarekin xahartu egiten da eta frexkotatzen galitzen du. Orain aje horiei erremedioa jartzen saiatuko gara eta, modu progresiboan, aldaketak ikusiko ditugu hurrengo hilabeteotan.

EGINGARRIA ETA ORAIN ARTEKOA HOBETUKO DUENA

Kontua ez da aldizkari bakoitza *artelan* bat bihurtzea eta egin behar duenarentzat eguneroko *burukomin* bat sortzea. Kazetari-tza eta komunikazioaren ikuspegitik, eguneroko lanean erabilerraza eta prak-

tikoa den diseinua bilatzen da. Bada non hobetu, eta hobetzeko helburuarekin egingen dira aldaketak guztiak.

Funtsean, *bisualtasunean* irabazi nahi da eta, aldi berean, informazio erre-kurtsoetan aberatsagoa bihurtu. Zentzu honetan, informazioa antolatu eta erakusteko irakurleari primeran etorriko zaizkion *datu fitxak* sartuko dira artikulua eta erreportajeetan. Fitxa horietan artikuluen edukiaz jabetzeko lagungarri diren datuak erakutsiko zaizkio irakurleari eta horrela, titulu, azpititulu eta argazki oinez gain, artikulua leitzen hasteko *sarbide* gehiago eskainiko dira.

DATU FITXAK

Gisa honetako elementuen bitartez, artikulua, kronika edo erreportajeetan biltzen diren daturik esanguratsuak eskainiko zaizkio irakurleari.

EDUKI GEHIAGO

Herriz herri eta Iritzi orrialdeak eduki gehiagorekin indartuak etorriko dira. Eta era berean, **haur eta gaztetxoek** atal berezia izanen dute, **Mari more**.

EDUKIETAN ABERATSAGOA

Gaur egun aldizkariak dituen atal guztiak mantenduko dira etorkizunean ere. Hori bai, atal horietako batzuk indartu egingen dira etorkizunean, eta bakarren batzuk erabat berriak izanen dira.

Orohar indartuagoak agertuko diren atalen artean bi dira bereziki aipagarriak. Batetik **Herriz herri**ko orrialdeetan arreta berezia jarriko zaio herri guztietako informazioa biltzeari. Kasu batzuetan tokian tokiko berriemaileen eskutik izanen da hori, eta herriko berriemaileek ez den kasuetan, erredakzio-kazetariak arduratuko dira segimendu informatiboa egiteaz. Era berean, **Iritzi** atala ere indartu nahi da aldiro-aldiro hainbat kolaborazio sartuz eta txandaka zutabegileei tartea eskainiz. Honekin gutienez bi helburu lortu nahi dira: batetik aldizkaria aberastea iritzi aniztasunari dagokionez eta, bertetik, eguneroko aktualitatearen interpretazioan parte hartu nahi duten guztiei bide ematea aldizkari honen orrialdeetan.

Erabat berriak izanen diren atalen artean bada bat bereziki aipagarri dena: haur eta gaztetxoek zuzendutako **Mari more** atala. Ez zaio orain arte batera arretarik eskaini TTPI-TTAParen orrialdeetan eta hutsune hori betetzea izanen da sail berriaren helburua. Egia da TTPI-TTAPA Telebistan bazela joan den urtean izen bereko telelaia, Elizondoko Karmen txu Elizegik aurkeztua.

Kolaborazioak

Elkarlanean oinarritutako erlazioa

Pablo ELIZONDO

Gure eskualde tiki honetan behar beharrezkoak dira kirolan, kulturen edo edozein bertze alorretan lan egiten duten Elkartak. Doneztebeko Erreka Kirol Elkartea hortan dabil azkeneko 33 urteetan.

Gure gabeziak ditugu, bai ekonomikoak bai giza baliabide aldetik ere, baina gure mugak ditugun arren bizirik gaude, hagitz bizirik gainera. Elkartea osasuntsu dago, gogotsu, eta horrela azaltzen dute urte guztian zehar martxan jartzen ditugun ekitaldi ugariak.

Guzti hau posible izateko ezinbertzekoa da gure lana «munduan zehar» zabaltzea. Horregatik jarri

genuen martxan, orain dela urte bete inguru, Erreka Kirol Elkartearen Blog-a. Eta horregatik argi ikusten dugu TTIPI-TTAPA bezalako egitasmo batek duen garrantzia. Zuen beharra dugu, haundia gainera, egi-

ten ditugun ekitaldiak jendearengana hurbiltzeko eta borontate hutsez egiten dugun lan hori guztia eza-gutxera emateko. Eta zuek, nolabait ere, gure beharra ere baduzue, eskualdea "hilik" ez gelditzeko geurea bezalako Elkartek behar baitira.

ELKARLANA da gure artean dagoen erlazioa, eta elkarlan horretan gure ondoan izanen gaituzue etorkizunean ere. Eskerrik asko urte hauetan guztietan TTIPI-TTAPA posible egin duzuen guztiei. Bertze 500 ale eta gehiago irakurtzeko aukera izanen dugulako, ZORIONAK bihotz-bihotzez Erreka Kirol Elkarteko zuen lagunen partetik.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Otik 500era. 1981etik 2009ra. Idazmakinatik ordenagailura. GU lagun taldetik TTIPI-TTAPA Fundaziora. Ahalzenkaritik hamabostekarira. Disketetik USB lapitzera. Fotokopiatik offsetera. Txuribeltzetik kolorera. Argazki-laboregikiko likidoetatik argazki digitalera. Bolalumatik Photoshopera. Ostatuan erostetik etxean hartzera. Beratik Etxalarrera. Nafarroatik Lapurdira. Autobusetik Internetera. Faxetik posta elektronikora. TTIPI-TTAPA. Gure burutik zuen eskuetara. Zuen ekintetik berripaperera.



Juan Larramendi margolari beratarrak egindako ilustrazio honekin publikatu ziren TTIPI-TTAPA aldizkariaren lehenbiziko zenbakiak

UZTAREN BIHIAK



1997

«Industrialdea egiteko nahia CSI lantegiaren berregituratzearen ondorioz sortutako kezkarengatik etorri zen. Espero dugu orain industriaz betetzea eta lanpostuak sortzea».

Jose Luis ETXEGARAI

Lesakako alkatea, Alkaiagako industrialdearen inaugurazioan
TTIPI-TTAPA 202. alea, 1997.03.27



1998

«Eraikuntza berrietan, proiektua egiten denean hartu behar dira kontuan ezinduen arazoak, behin eginda gero moldatzea zaila eta garestia baita».

Julen LEKUONA

Berakoa, «Aulki gurpildunari lotuak» izeneko erreportajea
TTIPI-TTAPA 229. alea, 1998.05.07



1999

«Euskararen besta da, beraz euskarak Ipar Euskal Herrian bizi duen egoera larria plazaratu nahi dugu ere, salatuz euskara hemen AEK eguneko afitxeko lagunak bezain larru gorritan dela».

Kattin BERGARA

Sarako Gau Eskolak AEK Eguna antolatuta
TTIPI-TTAPA 264. alea, 1999.10.21

UZTAREN BIHIAK



2000

«Nere aitetxik ireki zuen 1898an. Gero bere semeak, Vitoriok hartu zuen. 1941ean hil zen nere aita Vitorio, eta gero bere amak hartu zuen. Ni 13 urterekin hasi nintzen argazkiak ateratzen»

Felix MENA

Elizondoko argazkilaria, dendak 100 urte TTPI-TTAPA 271. alea, 2000.02.10




2001

«Jendeak uste du izugarri zaindu naizela, baina hori ez da horrela. Horrela egin izanen banu, 30 urterako pilotaz nazkatua egonen nintzen. Gustokoa dudan ofizioan pixkanaka zahartzen jakin izan dut».

Julian RETEGI

Eratsungo pilotari haundiaren agurrean TTPI-TTAPA 311. alea, 2001.10.04



2002

«Untxi kiloa produzitzea 1,60 euro gostatzen zaigu, 1,20 eurotan saldu eta gero harategian 5 eurotan dago. Beraz, eguneroko lanaz aparte, saltzen dugun kilo bakoitzeko 40 xentimo galtzen dugu».

Jose Luis TAINTA

Lesakako untxi hazlea sektorearen krisiaz TTPI-TTAPA 333. alea, 2002.09.05

LANAREN AITORTZA → RICARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

Ohorezko Aipamena 2009an

TTPI-TTAParen alde egiteko honako merezimendu hauek aipatu ditu epaimahaiak: tokiko komunikabideen artean aitzindari izatea eta zailtasunei aitzin egiten jakitea

Euskal kazetaritzaren alorrean ematen diren saririk garrantzisuenak, zalentzarik gabe, Argia Sariak eta Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak dira. Biak eskuratu ditu TTPI-TTAPak. 1995ean lortu zuen Argia Saria prentsa idatzi-

aren atalean. Eta bi urte beranduago, 1997an, eskuratu zuen *ex aequo* Entzun! aldizkariarekin batera, Ricardo Arregi Kazetaritza Saria lehenengo aldiz. Oraingo honetan Ohorezko Aipamena jaso du.

SARIAK

1990: Lamien Urrezko Orrazia, Zaldiko Maldikok emana.

1991: Arkupeak Elkarteak emana, «egindako lanagatik».

1995: Argia Saria, Argia aldizkariak emana.

1997: Rikardo Arregi Kazetaritza Saria, «euskarak egindako aldizkari bat Interneten jartzen lehenak izateagatik» emana.

2009: Rikardo Arregi Kazetaritza Saria, Ohorezko Aipamena.

zen Rikardo Arregiren ize-na jarri zitzaion sariari, euskal idazle, kazetari eta kultur eragile haundia izan zelako.

TTPI-TTAPAK HAINBAT SARI ESKURATU DITU

TTPI-TTAParen lanak lehen ere jaso ditu aipamenak eta sariak. 1990ean Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarteak **Lamien Urrezko Orrazia** izeneko saria ere eman zion «hamaboskariaren alde emandako pausoarengatik» eta 1991n, berriz, **Arkupeak Elkarteak**, eskualdean egindako lanagatik.

1995ean **Argia Saria** jaso zuen. Zazpigarren edizio hartako epaimahaiak adierazi zuenez, «batzuek nazio mailako eremua hartzen dute komunikazioa egiteko gunetzat, eta eskualde maila zehatzagoan lan egitea erabaki dute beste batzuek. Erakunde bultzadarekin batera sortu dira batzuk, eta beste batzuek fruituak ematen hasitakoan jo dute laguntza eske. Aurretik landutako soroetan hasi da zenbait, eta Argia saria emango diogun taldeak, aldiz, euskarazko irakurleak ia deuseztik sortzeko apustua egin du. Herri prentsako erreferentzia nagusietako bat den eta Nafarroako eskualde oso bati bizi berri bat eman diolako, gure Argia

Tokiko komunikabideak sortzen aitzindaria izan zen TTPI-TTAPA. Duela 29 urte ekin zion ibilbideari, eta geroztik, Baztan, Bertizarana, Bortzirak, Maleurreka, Basaburua Barrena eta Xareta aldeko herritarrei eskualdeko gertaeren berri emateko lanean ari da. Bidean «hainbat zailtasun ere gainditu ditu baina aitzinera egin du». Hain zuzen horregatik, «tokiko komunikabideetan lehenbizikoetarikoa izan zelako», «komunikazio egitasmoak egoki erantzuten diolako xede duen gizarte nafarrari», «egoera zailetan aurrera begiratzeko eta bertzehadabide batzuekiko sinergiak bilatzeko kemena izateagatik» eta «zailtasunak zailtasun, euskara hutseko kazetaritzaren aldeko apustu ausarta egiteagatik» jaso zuen joan den ekainaren 27an Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren Ohorezko Aipamena Andoainen (Gipuzkoa). TTPI-TTAParen izenean Pello Apezetxea presidentek eta Joxemanuel Irigoien kudeatzaileak hartu zuten saria.

1988AN LEHEN ALDIZ

Rikardo Arregi Kazetaritza Saria Andoaingo Udalak 1988an sortu zuen, euskarazko kazetaritza bultzatzeko eta indartzen laguntzeko. Andoaindarra



AIURRI

Ekzerretik hasita, Gorka Bereziartua, (Argia aldizkaria) *Kazetari berria* ataleko saria; Iñigo Martin, Euskadi Irratiko *Kostaldeko Trena* irratsaioaren izenean, *Epaimahaiaren* sari berezia; Olatz Simon (EITB), *sari nagusia*; eta Pello Apezetxea eta Joxemanuel Irigoien, TTIPI-TTAParen izenean, *Ohorezko aipamena*.

Saria TTIPI-TTAPA aldizkariarentzat da».

1997an ere **Rikardo Arregi Kazetaritza Saria** jaso zuen, Entzun! musika aldizkariarekin batera, «euskararen erabilerarako mundu berriak eskuratu zituztelako». TTIPI-TTAParen kasuan, «euskarazko prentsaren munduan, ez argitalpenaren zati batekin baizik eta aldizkari osoarekin, aldizkariako informazio guziarekin alegia, edizio elektronikoa Internet sarean eskaini duen lehena» izateagatik. 1996ko uztailaren 5ean hasi zen Interneteko edizioa argitaratzen TTIPI-TTAPA eta Ricardo Arregi Kazetaritza Sariako epaimahaiaren arabera, «modu horretara, euskal prentsa amaraun-mundu berrian sartzeko bidea ireki du TTIPI-TTAPAK; nola-bait esateko, aldizkari nafarrari zor diogu euskal kazetaritza amaraunean, Interneten sartu izana. Eta ahaleginak neurtzea egokia ez ezik bidezkoa ere badenez, azpimarratzekoa da toki aldizkari bat izatea urrats hori ematen lehena gure artean».



Argia sariaren ikurra



Ricardo Arregi Kazetaritza Sariaren ikurra

UZTAREN BIHIAK



2003

«XVII. mendean lan gogorra zen sagardoa egitea. Orduan, sagardoa zanpatzen astebete edo gehiago aritzen ziren, gau eta egun. Lana arintzeko kirikoketa hartzen zuten eta erritmoa jartzen zuten».

Xabi TORRES

Jo ala jo taldekoa, Kirikoketa egunaz TTIPI-TTAPA 361. alea, 2003.10.30




2004

«Hura zoramena izan zen! Euskal Herrikoan txapelik ezin jantzi eta Munduko txapelketan zilar eta urrez hornituak! Tiralariek azken orduan eritu eta Glasgowra joan ezin izan zuten Iñaki Igoari eskaini zioten».

Beti Gazteko sokatira taldea

Munduko txapeldun (Glasgow - Eskozia) TTIPI-TTAPA 369. alea, 2004.03.04



2005

«1962an eta 2002an Iruñean eta 1970ean Donostian jokatu ziren Munduko Pilota Txapelketetan laxoa erakustaldi partidak jokatu ziren Bear-Zanan, ez Iruñean ezta Donostian ere ez baitzen plazarik».

Patxiku GANBOA

Laxoa Elkarteko kidea, Bear-Zana pilota plazaren 150. urteurrenean TTIPI-TTAPA 405. alea, 2005.09.08

UZTAREN BIHIAK



2006

«Sute batetik etorri eta lortu baduzu bizi bat edo etxe bat salbatzea, izugarrizko satisfakzioarekin etortzen zara, hori ez da mundu guziko diruarekin ordaintzen»

Josu GOIA

Berako suhiltzaileek 100 urte
TTIPI-TTAPA 422. alea, 2006.05.18



2007

«Txapelek beti ilusioa egin dute eta aurtengoak bereziki, herriko gazte batekin (Julen San Migel) aritu naitzelako. Jende gaztea eramaten du eta herriko giroan nabari da».

Koteto EZKURRA

Doneztebeko bikotea txapeldun
TTIPI-TTAPA 439. alea, 2007.02.01



2008

«Ez da deus ere kostatzen eta borondate pixka batekin aunitz lagun daiteke. Bertzeei on egiteko aukera ederra da».

Juan Carlos ARREGI

Odol Emailen Elkarteko Doneztebeko delegatua

«Besteei laguntzeko aukera izanik zergatik ez elkarri lagundu? Inoiz gu ere beharrean aurki gintezke!»

Olatz GARMENDIA

Odol Emaila
TTIPI-TTAPA 473. alea, 2008.06.26

Kolaborazioak

Gure historia

Orain dela 2.000 urteko kontuak



Baskoiak duela
2.000 urte, gaurko
maparen gainean
kokatuak

- **Estrabon-ek errana:** (I. mendea Kris-to baino lehen)

Geografoa, etnografoa eta historialaria izan zen Estrabon. Erromatar Inperioaren garaian, Iberian izan zen Posidio maixu haundia, eta bere erranetara, Estrabonek idazten du, grekeraz:

Ὑπερκεῖται δὲ τῆς Ἰακκητανίας πρὸς ἄρκτον τοῦ τῶν Οὐάσκωνων ἔθνος, ἐν ᾧ πόλις Πομπειῶν...

Strabon; «Geographiká», III. tomoa, 4-10 (grekera klasikoan idatzia)

Itzulpena: (Tarraco-tik Ebro ibaian goiti heldu direla, «...iparralderuntz da Baskoien herria (**Ovaskónon étnos**) eta beraien hiri nagusia Iruñea (**polis Pompeion**)...»

- **Titus Livius:** historialari erromatarra hau ere, honek latinez idatzi zuen; Ponpeio eta Sertorius bi buruzagien arteko gerra famatua kontari (80-72. urtea Kris-to baino lehen), zera idatzi zuen:

«Sertorius... ad Calagurrim Nassicam venit... per Vasconum agrum ducto exercitu in confinio Beronum...».

Itzulpena: «Sertorio... Calahorra inguruetatik etorri zen... Baskoien landa-so-roetan (gaur erribera) barna gidatuz armada Beronen mugetaraino...».

Titus Livius; «Sertorio eta Ponpeioren arteko gudaren kronika», XCI zatia.

- **Ptolomeo:** astronomoa, geografoa eta matematikoa. (Alejandria 100-170 Kris-to ondotik). Aski ezaguna da Ptolomeoren izena, baina eskolan inor guttik erakutsi digu 16 hirigune baskoien aipamen idatzia egiten duela Ptolomeok, grekeraz.

Hona hirigune eta herrixka baskoiak, Ptolomeok zioenaz:

«**Oiasso** (Irun)... **Itourissa** (Iturri-zar?), **Ponpailon** (Pamplona-Iruñea), **Bitouris**, **Andelos** (Mendigorría ondoan), **Nemnan-tourissa**, **Kournonion**, **Iakka** (Jaca?), **Grakouris** (Calahorra), **Kalagorrina**, **Kaskonton** (Cascante), **Ergaouika**, **Tarraga**, **Mouskaria** (Tudela ondoan?), **Setia** (Ejea?), **Alauna**...»

Klaudios Ptolemaios, «Geographiké Úphégesis», II, 6-66.

Informazio iturriak:

- Canto, Alicia M., «Ensayo de identificación de ciudades vasconas»; Universidad Autónoma de Madrid. Internet: Manuel Sagastibelza, 2004. http://es.geocities.com/los_vascones/vascones_identificacion_ciudades.htm
- Perez Agorreta, María Jesús, «Los vascones»; Príncipe de Viana, Historia, 1986; «Los Vascones según las fuentes escritas», UNED-Madrid.
- Wikipedia, entziklopedia askea.

Informazio bilketa:

Antton ERKIZIA

Kolaborazioak

Gu ez omen gara 'hemengoak'

Antton ERKIZIA ALMANDOZ

TTIPI-TTAPAk 30 urte beteko ditu laster. 500. alea du hau. Bada zerbait. Aunitz urtez.

Baina hau baino lehenago, "*Principe de Viana*" banatzen zen etxez etxe, euskaraz hura ere, nork eta Nafarroako Diputazioak berak editatua, Amadeo Markoren garaietan, Francoren garaietan. (Eta kartilla irekitzen zuten CajaDeAhorros-en, 25 pezetakin, euskaraz zekiten neska-mutiko bakoitzari, oroitzen?).

Orain, ordea, aldatu da diskurtsoa. Orain diotenez, gu ez gara VASCOAK, bai zera, INOIZ ez omen gara izan; VASCO-ENCEA ez da gurea. Kanpotik ekarritakoa, Gipuzkoa alu eta gaizto horretatik etorriak edo.

Eta poliki poliki, aitzaki maitzaki, euskara itto nahi dute. Hori da dena.

Gauza da: izatekotan, gu garela jatorrizko basakoiak, duela bi mila urte erromatarrek aurkitutako WASCONUM ETNOS, hemen. Hori da egia.

**Izan zirelako (atzo)
gara (gaur)
eta garelako
izanen dira (bihar)**

–Nahi badute–

Utopiak gauzatzen direnean

Josu GOIA ETXEBERRIA

Gaztea nintzenean, nire herrian euskara gutti entzuten zen. Baserrietan bai, baina herriko karriketan bat ere ez edo hagitz gutti.

Ni ere erdaldun peto petoa nintzen eta gurasoek euskaraz egiten zuten, gu zerbaitetaz ez enteratze-ko.

Gero, nahiz eta euskaraz ez jakin, Lesaka eta Berako talde bat hasi ginen kultur mugimendu bat sortzen eta mugitzen. Hemendik sortu ziren, bi herri horietan, lehenbiziko kultur asteak, lehenbiziko euskal kantaldiak, antzerkiak, dantzak, arte erakusketak, konferentziak, euskal musika tresnak, euskaraz ikasteko gaveskolak eta azkenean... Lesaka eta Berako Ikastolak.

Erdarak inguratuak ginen, eta gauza hauek martxan paratzea hasieran utopia iduritzen zitzaigun, baina ilusio ikaragarria bagenuen eta lan egiteko prest ginen.

Azkenean gure utopiak gauzatu ziren, bide aunitz markatu genituen eta geroztik, markatutako bide horiek, jende aunitzek segitu ditu.

Bertze utopiak ere bidean gelditu ziren: Posible zen Beran bi irrati izatea? Segapoto irratia eta Izoki irratia. Azkenean ez bat, ez bertze... biak pikutara joan eta utopiara bueltatu ziren. Eskerrik Xorroxin irratia antolatu zen gure zonalde guztirako...

Bertze utopia sortu zen gero: TTIPI-TTAPA aldizkaria, bertze talde ttiki batetik. Baina utopia hori, ez bakarrik gauzatu... sendotu ere egin zen. Hogeita zortzi urte pasatu dira eta bortzehun ale karriketara ateratu ditu. Zorionak!

Lastima TTIPI-TTAPA telebista bidean gelditu behar... Hemen autokritika bat denok egin behar dugu. Beran bi irrati paratzea erokeri bat izan zen. Zonaldean bi telebistak martxan paratzea, bertze erokeri bat izan da. Ez politikoak, ez euskalzaleak... ez gara izan kapazak biekin bat egiten, errentabilidada gehiago ateratzeko, bai ekonomikoki, bai informazio gehiago eta hobeki emateko.

Denok badakigu zenbat traba paratu dizkizuen Nafarroako Gobernuak... Denok badakigu zuen soldata ere ez direla sobera fuerteak. Denok badakigu, izokinak erreketan bezala, zuek ere erre karen kontra, traba guztiak gainditzen ari zaretela, ilusioarekin, ikaragarritzko lanarekin... eta horregatik eskerrak ematen dizkizuegu.

Zuen lanarekin, niri pertsonalki euskara hobeki ikasteko eta idazteko, lagundu didazue. Horregatik berriz erran behar dizuet: Mila esker eta Zorionak!



ARANTZA

abuztuak 14 ORTZIRALA

Besten hasiera

18:00 Pintxo lehiaketa **19:00** Altxaferua Herriko Etxetik **Ondotik** Presoen aldeko brindisa, luntxa eta kalejira IZADI txaranga eta herriko musikariekin **20:30** Herriko dantzari ttikien emanaldia **00:00/04:00** Dantzaldia TRIKIZIO taldearekin **Atsedenaldira** bingoa



abuztuak 15 LARUNBATA

Amabirjin eguna

10:00 Argisoinuak herriko musikariekin **11:00** Meza Nagusia eta prozesioa **12:30** Herriko dantzariak zortzikoak dantzatuko dituzte **18:00** Haurrendako tailerrak **18:00** Haurrendako tailerrak **18:30** Pilota partidak frontoian Afizio-natuak: MITXELENA-ARRAZTOA / PIKABEA-MADARIAGA. Profesionalak BELOKI-ELIZALDE / ALTZUGARAI-GALARTZA VI.a **20:00** Pintxoak eta sagardoa plazan **Ondotik** bertso saioa **20:30** Dantzaldia BALEIKE taldearekin **21:30** Suzko zezena **00:00/04:00** Dantzaldia BALEIKE taldearekin



abuztuak 16 IGANDEA

10:00 Argisoinuak herriko musikariekin **17:00** Herri kirolak frontoian: Nafarroako herri arteko txapelketa **19:00** Herriko dantzarien emanaldia **20:00** Dantzaldia TXIMELETA taldearekin **20:30** Pintxoak eta sagardoa plazan **Ondotik** bertsolariak **00:00/04:00** Dantzaldia TXIMELETA taldearekin




ARANTZA

abuztuak 17 ASTELEHENA

Haurren eguna

10:00 Argisoinuak herriko musikariekin **11:00** Haurrendako herri kirolak **11:00** Herritar eta kanpotarren arteko desafioa **13:30** Haurren bazkaria **16:00** Haurrentzako puzgarriak frontoian **17:00** Plater tiroketa Usua Ehiztari Elkartearen eskutik **20:00** Pintxoak eta sagardoa plazan **20:30** Dantzaldia JALISKO BAND taldearekin **21:30** Suzko zezena **00:00/04:00** Dantzaldia JALISKO BAND taldearekin **Atsedenaldira** bingoa



abuztuak 18 ASTEARTEA

Besten bukaera

10:00 Argisoinuak herriko musikariekin **11:30** Mus txapelketa Ekaitza Elkartean **13:00** Buruhaundien kalejira IZADI txarangarekin **14:30** Herri bazkaria eskoletan **Ondotik** txaranga eta herri poteoa **20:00** Dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeoilariarekin **20:30** Pintxoak eta sagardoa plazan **00:00/04:00** Dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeoilariarekin

BURLADA Jaleteria
Especializadurak:
- Arakada eta
- Arakada
- Denda prestatuak
- Berrak eta berrak
giro goxoa

Tel: 948 634 627 - ARANTZA

ILLURDI zurgindegia

- gileak
- karkinak
- parketak
- leihotak
- eskalerrak
- telatza eta portakak

670 303 520
680 686 836
ARANTZA

PABLOENEA
Gara 1, 3 - ARANTZA - 948 634 677

Mahua
Karta berezia
Puzteko konpainiak
Ogiak
Hamabost
Puzte
Santitas

ONET PABA BESTA

ALZURI ELEKTROGAILUAK

Instalazio elektrikoak
Portak automatizatuak
Desentratu konposatuak
Alumak

ongi pasa besta!

Bittiria, 41 - 31770 LESAKA - Tel: 948 62 75 31


PIKABEA
harategia
panak

ongi pasa besta!

Askain, 7 - BERA
T. 948 631 284



ARANTZAKO UDALAK
besta onak opa dizkizue aranztar eta bisitari guztiei



ETXALAR

abuztuak 14 ORTZIRALA

Besten hasiera


19:45 Agerraldi ixila *Euskal Presoak Euskal Herrirat* lemapean **20:00** Altxafearua, txistulariak, trikitilariak, GAUERDI txaranga, buruhaundiak eta kankailuak. Txanpaina eta goxokiak banatuko dira **21:30** Herri afaria frontoian. Txartelak hartzeko epea abuztuaren 10ean akautuko da. Afaria txarangak girotuta **00:30/04:00** Dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin **Atsedena**ldian GAUERDI txaranga



abuztuak 15 LARUNBATA

Amabirjin eguna

10:30 Argisoinuak gaitero, buruhaundi eta kankailuekin **11:30** Meza Nagusia **12:30** Herriko dantzarien saioa. **Ondotik** Kultur Etxean hameketakoa dantzari eta musikarientzat **Ondotik** gaiteroak plazan **18:30** Argazki zaharren erakusketa Kultur Etxean. **18:30** Euskal Herriko Gizonezkoen Trontza Txapelketako kanporaketa. Euskal Herriko Emakumezkoen Trontza Txapelketa **19:30** Bertso saioa: Sebastian Lizaso, Joxe Juan Zubieta *Etxabe*, Xabier Silveira. Gai jartzailea: Joseba Olagarai **20:30/21:30** LOS GARNATXOS DE KONKETA mariatxi taldea **00:30/04:00** Dantzaldia GAUBELA taldearekin



abuztuak 16 IGANDEA

Haurren eguna

11:00 Argisoinuak konpartsa ttikiarekin **12:00/14:00-15:30/17:30** Haurrendako joko parkea: Karts pista, txirrista puzgarria, Conbo puzgarria eta pitola etxearekin **17:00** XV. Mus Txapelketa bi mailatan **19:00** Herriko gazteen herri kirol desafioa. Aurten ere herriko bi talde elkarren artean lehiatuko dira **Ondotik** joko bat prestatuko dute nahi duenak parte har dezan **20:00/22:00** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin **22:00** Suzko zezena **00:30/03:30** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin

ETXALAR

abuztuak 17 ASTELEHENA

10:30 Argi soinuak ZUPERRI fanfarrea, buruhaundi eta kankailuekin **11:30** Et-xalarko haurren XXII. esku pilota txapelketaren finala **12:30** Afizionatuen ar-teko pilota partidak: Unai CEREZO-Toni UHARTE, Joseba PIKABEA-Gaizka OTXANDORENA **18:00** Herriko trikitilarien jaialdia **19:30/21:30** Patxi Perez eta konpainia Dantza Piko animazioarekin **00:00/03:00** Dantzaldia BALEIKE tal-dearekin



abuztuak 18 ASTEARTEA

Asau eta Jubilatuen eguna

